



HARRAPATU EGITEN DUTEN SAREAK [ERANSKINA]



Save the Children

*Autoerakusketaren tranpa: sexu-esplotazioko
dinamika berriak ingurune digitalean*

Azterlana Bartzelonako Unibertsitateko GReVIA Haurren eta Nerabeen Biktimizazioaren Ikerketarako Taldeak (Laura Pascual, Alba Águila eta Noemí Pereda) egindako inkestaren bidez lortutako datuetan eta MEDUSA Derechos Humanos taldeak (Paloma Torres, Isabel Díez eta Maribel Rodríguez) egindako aurretiko ikerketan oinarritzen da.



Save the Children

Lurraldeko Eragin eta Garapeneko zuzendaria: **Catalina Perazzo**. Haurtzaroko Politiken arduraduna: **Carmela del Moral**. Egiletza eta koordinazioa: **Clara Burriel**. Komunikazioa: **Naroa Salgado**. Artea eta maketazioa: **Anna Fàbrega**.



Editatu:

Save the Children España
2025 Azaroa

5	Sarrera
6	1. Autoesposizioa, sexu-esplotazio digitalaren era berrietarako sarbidea
9	2. Sexu-esplotazioa bultzatzen duten espazio digitalak, plataformak eta dinamikak
12	3. Hurrek eta nerabeek autoesposizioko espazio eta dinamikak ezagutu eta horietan sartu eta parte hartzea
12	3.1. Espazioen eta plataformen ezagutza
20	3.2. Plataforma horietarako sarbidea
22	4. Autoesposizioaren erak haur eta nerabeenganako pertzepzioan duten inpaktua

23	4.1. Online eduki sexualarekin dirua lortzen dutenekiko pertzepzioa
25	4.2. Autoesposizio digitalari buruzko pertzepzioak
29	4.3. Esplotazio-dinamiketan kontrola eta ahalmena izatearen ilusioa
31	5. Haurrak autoesposizio digitala sustatzen duten plataforma eta espazioetara atxikitzearen arriskuak
35	6. Gomendioak
37	7. Konklusioak

Aurrerapen teknologiko etengabeak eta konexiorako dauden aukerak aldaketa ekarri dute eta erraztu egin dituzte ingurune digitalean hurrenganako eta nerabeenganako indarkeria sexualak; tartean, sexu-esplotazioa. Bereziki konplexua eta zedarritzen nahiko zaila den indarkeria hori ezagutu eta aztertzen jarraitzeko asmoz, Save the Children erakundeak *Harrapatu egiten duten sareak* izeneko txostena egin dugu, 2025eko uztailean argitaratu zena. Ikerketa horretarako, gaian adituak diren profesionalei eta adituei kontsultatu genien eta inkesta bat egin zitzaion 18 eta 21 urte bitarteko 1.008 gazteri nerabezaroan izan zituzten pertzepzio eta online jokabideei buruz, arreta berezia jarritz Internetako sexu-esplotazioarekin lotutako ezagutza, sinesmen eta esperientzietan. Tailer presentzial batzuk ere antolatu ziren 15 eta 18 urte bitarteko gazteekin Internet erabiltzen dutenean identifikatzen dituzten kezka eta arriskueta sakontzeko.

Ikerketa horretan sakonduz, sexu-esplotazioari lotutako fenomeno bat hauteman zen, nahiz eta beti ez den horri lotuta agertzen: haurren eta nerabeen autoespozio edo gainesposizio digitala. Fenomeno horrek elkartruke baterako edo irabazi bat lortzeko adingabeek berek abiarazten edo gauzatzen dituzten jardura sexualen jokabideak biltzen ditu. Jokabide horretan sartzen dira elkartruke hori sustatzen duten espazio digitaletan agertzea, eduki erotikoa edo sexuala harpidetzen bidez eskaintzen duten web-orriak barne direla (adibidez, OnlyFans zeharo famatua) edo gorputzaren merkantilizazioan –batez ere, emakume eta neska gazteena– oinarritutako kontratu-harremanak bilatzeko erabiltzen diren *sugar dating* plataformak. OnlyFans ez da pizgarri ekonomikoei lotutako autoesposizioa sustatzen duen plataforma bakarra, baina bereziki aztertzen da txosten honetan, duen garrantzi bereziagatik: mota horretako plataformarik ezagunena da, eta nerabeen artean ezagunena. Plataformak gero eta garrantzi handiagoa hartu du, eta, horrekin batera, dokumentatutako kasuak eta adingabeek ingurune horretan duten parte-hartzeari buruzko azterlanak eskuragarri daude. Hori dela eta, azterketa xehatua egin behar da.

Neskak –bereziki, neska gazteak– horrelako plataformetan parte hartzea onartzera eta normaltzera heldu izan da, mutilek eta gizonezkoek horrelakoak kontsumitzea onartzera eta normaltzera heldu izan den hein berean. Baina, nerabeen kasuan zer? Normaldu egin dituzte plataforma horiei lotutako jokabideak? Badakite halakoek zer arrisku dakartzaten? Zergatik hasten da normaltze hori eta non dago muga? Azterlan honetan, ikusiko dugu neska-mutilek plataforma horiek ezagutzen al dituzten, horietan parte-hartzen duten, zer eratan hartzen duten parte, zer iritzi duten horiei buruz eta erabiltzen dituztenei buruz, eta zein diren horietan parte-hartzeari eta jokabide horiek normalizatzeari lotutako arrisku nagusiak. Nerabeen

artean autoesposizioa sustatzen duten sare sozialen eta plataformen rola ere aztertuko dugu.

Harrapatu egiten duten sareak txostenean esaten genuenez, ulertu beharra dago jokabide horiek eta horien balizko arriskuak ez direla hutsetik sortzen: egungo ekosistema digitalak hazitegi aproposak dira horrelakoentzat. Dinamika horiek, bestalde, faktore sozialek, kulturek eta ekonomikoek sustatzen eta legitimatzen dituzte. Faktore horiek ere aztertuko ditugu azterlan honetan. Eranskin honetan egindako diagnostikoan oinarrituz, haurrak eta nerabeak eremu digitaleko indarkeria horietatik babesteko eta indarkeria horiek prebenitzeko politika publikoak indartzera zuzendutako gomendioak eman nahi ditugu.

1. Autoesposizioa, sexu-esplotazio digitalaren era berrietarako sarbidea

Teknologiak ahalbidetzen dituen sexu-esplotazioko era berrien artean, fenomeno berria –eta, bide batez, guztiz kezagarria– da haurrak eta nerabeak sexu-jardueretan aritzen direla ingurune digitalean diruaren, oparien edo beste konpentsazio edo irabazi –benetakoak edo iruditutakoak– mota batzuen truke. Gainesposizio edo autoesposizio digital hitzarekin deituko diegun jardunbide horiek haurrek eta nerabeek berek hasten dituzten jardueratzat jo daitezke, eta borondatearekin, baimenarekin eta, are, ahalduntzearekin lotutako diskurtsoen itxurapean aurkezteraino heldu gara. Horrek, bere aldetik, jokabide horiek normaltzea eta horien larritasuna gutxitzea bultzatzen du. Diskurtso horiek, izan ere, ez dituzte kontuan hartzen praktika horien azpian dabiltzan logika esplotatzaileak, baita nahita egiten dituzteneko itxurapean direnean ere, eta ez dute onartzen egiatan presio sozialak, desberdintasunaren eta indarkerien eskutik doazen estereotipo eta jokabide matxistek, onartua izateko beharrak edo behar ekonomikoak agintzen dituzten testuinguruetan gertatzen direla.

Haurren eta nerabeen sexu-autoesposizioa sexu-esplotazio era bat nola den aztertuko dugu eranskin honetan, biktima instrumentalizatu egiten duen elkartruke bat, irabazi bat edo transakzio bat gertatzen delako. Halatan, autoesposizioa eratzen den dinamiketan, biktima den haurra ez da dagoeneko eta berez helburu

bat, irabazi bat lortzeko bitarteko bat baizik, esplotazioa ezaugarritzen duten elementuak erreproduzitzen direlarik.¹

Autoesposizioa, ez autoesplotazioa

Jokabide horiek, zenbait testuingurutan, “autoesplotazio” eratzat hartu izan dira. Hitz hori, ordea, ez da egokia eta arazoak sortzen ditu, erantzukizunaren fokua egiazki biktimak direnengana zuzentzen duelako. Hala, iradokitzen du haurrek eta nerabeek erabateko ahalmena dutela jardunbide horien gainean, desberdintasun sakoneko botere-harreman batzuen, egiturazko zaugarritasunen eta bultzatzen eta baldintzatzen dituzten faktore kontestual nola kultural batzuen ondorioz gertatzen direla aitortu ordez. Horregatik, horiek izendatzeko “gainesposizio” edo “autoesposizio” digitala hitza erabiliz gero, gauza zehatzagoa da, sexu-abusu edo -esplotazioko egoeretara daramatzaten jardunbideak direlako, nahiz eta hasiera batean haurrek edo nerabeek berek hasitakoak edo onartutakok direla dirudien.

«Autoesplotazioa ez da hitz egokia, seguruenik zerikusi gehiago du arriskuko eta gainesposizioko jokabide batekin, ez ordea autoesplotazioko batekin, ni ez naizelako ari neure burua esplotatzen». —Psikologiaren eta kriminologiaren arloko profesionala

Ingurune digitaleko haurrenganako eta nerabeenganako sexu-esplotazioaren gure ikerketa oinarritzen den inkestan parte-hartzaileei galdetu zitzaien horrelako jardueretan aritu al ziren adingabeak zirela. Zehazki, nolabaiteko konpentsazio, opari edo mesederen bat jaso al zuten argazkiak edo bideoak erakusteagatik, edo biluzik edo eduki erotikoko edo sexualeko zuzeneko emankizunetan arituak al ziren. Parte hartu zutenen %2,5ek baietz erantzun zuen (mutilen %2,1ek eta nesken %2,6k). Datu hori Bartzelonako Unibertsitateak nerabeen kontrako indarkeriari

¹ Harrapatu egiten duten sareak-en, sexu-esplotazioa da indarkeria sexual digitalaren era bat, non hirugarren baten eta haurraren edo nerabearen artean elkartruke bat ematen den edo hirugarren batentzat edo haurrarentzat edo nerabearentzat berarentzat irabazi bat edo ordainsari bat dagoen. Indarkeria mota horretan teknologiaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dira bere faseetako batean, izan bideratzaile moduan, izan indarkeria gertatzen den testuinguru moduan.

buruzko txostenean² jasotzen denaren oso antzekoa da. Gainera, %14,4k erantzun zuen ezagutzen zuela horretan aritutako norbait.

40gaztetik batek zuzeneko sexu-esplotazio digitaleko bizipen bat izanaketazazpitik batek hori jasan izan duena ezagutzen dutela jakiteak agerian uzten du fenomeno hori ez dela gauza isolatu bat, ezta ere salbuespen bat. Egiaz, datu horietatik abiatuta zenbatetsi dezakegu adingabeak zirela era horretako sexu-elkartrukeetan parte hartu izan zutela zioten gazteen ehunekoa, kopuruan ehunka mila haur izan daitezkeelarik Espainian. Horrelako egoerekiko esposizioak, gainera, zeharkakoa izanik ere, sexu-indarkeria digital hori normaltzera bultza dezake. Horrenbestez, gaiari merezi duen seriotasunez heldu beharra dago.

“Baimendutako” elkartrukea?

Espainiako esparru juridikoan, adingabea den pertsona batek ematen duen baiezekoak ez du balio sexu-esplotazioa izan daitekeen jokabideetan, baita horretan parte hartzea borondatezkoa dela ematen duenean edo adingabeak berak hasitakoa denean ere eta 16 urte baino gehiago –baimenaren legezko adina– baditu ere.

Halatan, Kode Penalaren 188. artikulua zigorra ezartzen du “adin txikiko pertsona batekin diru baten edo promesa baten truke sexu-harreman bat eskatzen, onartzen edo lortzen” duenarentzat, eta zigor handiagoak ezartzen ditu oraindik 16 urtetik beherako batekin baldin bada.

Beraz, nerabeek diruaren edo mesede batzuen truke sexuarekin zerikusia duen edukia sortzen edo partekatzen duten jardunbideak ezin dira baimendukotzat hartu; aitzitik, adingabeen sexu-esplotazioaren barruan hartu behar dira, horrelako egoeretan adin txikikoek baiezeko aske eta informatua emateko duten legezko ezgaitasuna eta botere mailan sortzen den egiturazko desoreka dela-eta.

2 Pereda, N., Guilera, G., Águila-Otero, A., Andreu, L., Codina, M., y Díaz-Faes, D. A. (2024). La victimización sexual en la adolescencia: un estudio nacional desde la perspectiva de la juventud española [Biktimizazio sexuala nerabezaroan: azterketa nazional bat espainiar gazteriaren ikuspegitik]. Bartzelonako Unibertsitatea.

2. Sexu-esplotazioa bultzatzen duten espazio digitalak, plataformak eta dinamikak

Gaur egungo ekosistema digitalean, badira irabazi ekonomikorako aukerari lotutako sexu-esposizioa –batik bat, neska eta emakume gazteena– normaltzen laguntzen duten espazio eta dinamikak. Hori da OnlyFans bezalako plataformen eta *sugar dating* gisako webguneen kasua. Gero eta ezagunagoak dira, baita nerabeen artean ere, legez pertsona helduentzako diren arren. Plataforma horiek autonomia finantzarioaren, ahalduntzearen eta norberarekiko irudiaren gaineko kontrolaren espazio gisara aurkezten dira, alabaina logika komertzial batzuek mugiarazten dituzte, logika oso patriarkalak, sexualizatuak eta asimetrikoak direnak, gainera, pornografiaren eta prostituzioaren munduan ageri diren formulak erreproduzituz.

- **OnlyFans** da erabiltzaileek berek sortzen duten edukirako sarbidea eskaintzen duen plataforma bat, edukiak sortzen dituztenek horiengatik dirua irabazi dezaketelarik. Eduki horiek askotarikoak izan daitezke, baina plataforma hori, batez ere, eduki sexualaren, harpidetzen, propinen, *pay-per-view*en edo *streaming* bidez, besteak beste. Egitez, OnlyFansen diru-sarrerak gehienak material sexualizatutik datoz, hain zuzen, gehien-gehien bat emakume eta neska gazteek sortutakoa.³

OnlyFansek eduki-sortzaileen eta harpidedunen arteko interakzio zuzena ahalbidetzen eta bultzatzen du mezu pertsonalizatuaren, zuzeneko emankizunen eta eduki pertsonalizatuaren bidez, harreman pertsonalago bat lortuz. Faktore horixe jotzen da, hain zuzen, plataformaren arrakastaren gakoetako bat. Azpiegitura tradizionalik gabeko negozio-eredu batean oinarritzen da: sare horretan agertzen diren neskek jartzen dute edukia, espazioa, teknologia eta, are, “produktua”, hau da, euren gorputza. Plataforma, bitartean, irabazien % 20ekin geratzen da, eta proxeneta bat balitz bezala jokatzen du, egiaz. Eredu horrek plataformaren hazkunde esponentziala ekarri du. Pornografiaren “uberizazioa” ere deitu izan zaio.⁴

Sarritan pornografiarekin lotzen bada ere, mota horretako plataformek sustatzen duten ereduak sexu-esplotazioarekin zerikusi gehiago duen elementuak agertzen ditu, esposizio intimoa eta sexuala transakzio ekonomiko batean bihurtzen delako, hirugarren batzuen eskariz eta kontrolpean elikatua eta baldintzatua izanik.

³ Plataforma honen diru-sarrerei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: Emakume Gazteen Federazioa (2024). Onlyfans. Sexuaren negozioaren espazio zuritu bat.

⁴ Aránguez, T. (2023). OnlyFans. La uberización de la pornografía [OnlyFans. Pornografiaren uberizazioa]. T. Aránguez & O. Olariu (koord.), Ensayos ciberfeministas [Saiakera ziberfeministak] (99–119 or.). Dykinson.

- **Sugar dating plataformek** ingurune digitalean sustatzen duten autoesposizio modalitatean, kontratu-harreman baten itxurapean egiten da, normalean 50 urtetik gorako baliabidedun gizonezko heldu baten (*sugar daddy*) eta neska gazte (*sugar baby*) baten artean, eta konpainia egitearen edo sexu-harremanak izatearen truke dirua, opariak edo beste onura batzuk, nagusiki materialak, eskaintzen dira.

Itxuraz borondatezkoa den elkartrukean oinarritutako harreman horiek, egiazki, zeharo desberdinak eta hierarkikoak diren botere-eskema batzuk erreproduzitzen dituzte eta genero-indarkerian oinarritzen dira: *sugar daddys* gaitasun ekonomikoa du, eta beraz, harremana kontrolatzen du, ordaindu gabe edo oparirik eman gabe utz dezakeelarik *sugar baby*ak uko egiten badio sexu-eskakizunen bati edo beste edozein motatako bati. Hori, zinez, derrigortze sexual bat da. Horrek dinamika esplotatzaile batean bihurtzen du *sugar datinga*, beste mota batzuetako esplotaziora daraman arrisku ingurune bilakatzen da, batik bat, neskak kalteberatasun ekonomiko edo sozialeko egoera batean direnean, are kalteberatasun afektiboan.

Hala eta guzti, jardunbide hori era masiboan sustatzen dute sare sozialen bidez marketin-estrategia gezurti batzuk erabilita, eta independentzia ekonomikorako bide modura edo emakumezkoen glamour edo ahalduzko modura saltzen dute.⁵

«Ez nago ados, 5 urteko mutiko bati karameluak emateagatik zurekin irteteko konbentzitu eta hark onartzea bezala da. Alde handia dago adinean!» —Neska nerabea

Funtsezkoa da aipatzea plataforma horiei lotutako sexu-autoesposizioaren fenomenoaren generoarekin lotutako dinamikek markatzen dutela, eta hori begi bistan geratzen da erabiltzaileen profilak eta ezaugarriak aztertzen baditugu: emakumeak, bereziki emakume gazteak, izugarri agertzen dira esposizioaren aldetik, eta gizonak eta mutilak, berriz, izugarri agertzen dira ikusleen aldetik.

OnlyFansen edukiak sortzen dituztenen profilei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu horien % 97a emakumezkoak direla, nagusiki 18 urtetik 24 urtera bitarteko neska gazteak, eta horien ikus-entzuleak, nagusiki, gizonezkoak direla. Hainbat

⁵ Padilla López, L. (2025). El proxenetismo digital y la captación de menores en redes sociales: Un análisis sobre la hipersexualización y el empoderamiento en plataformas online [Proxenetismo digitala eta adingabeak sare sozialetan atzitzea: Online plataformetako hipersexualizazioari eta ahalduzkoari buruzko analisi bat]. Revista de Victimología, (19), 213-250.

azterlanetan jasotzen denaren arabera, egitez, plataforma horietako harpidedunak 25 urtetik 44 urtera bitarteko gizonezkoak dira gehien-gehien bat.⁶ Nabarmentzekoa da Espainia dela plataforma horretan eduki gehien sortzen duen munduko bosgarren herrialdea.

Bestalde, *sugar datinga* botere-asimetriadun harreman-eredu batean oinarritzen da nagusiki, generoak, adinak eta kalteberatasun ekonomikoak zehaztua dena: gizonezkoak du boterea, “sari” ekonomiko batez baliatuta, eta “mentore” edo agintari rola indartzen du, gainera, adin askoz gazteagoko neskei jokabide sexualak eskatzeko eta gauzatzeko ahalmena dutela. Neskei, aitzitik, eskari horiek betetzeko mendekotasun- eta konplazentzia-rola esleitzen zaie. Web-orri horien bultzagarri komuna *sugar baby* bat (emakumezkoa) edo *sugar daddy* bat (gizonezkoa) aurkitzea izan ohi da. Alde handia hauteman izan da, halaber, plataforma horietan aurkezteko duten eran: emakumezkoek askoz informazio eta xehetasun pertsonal gehiago ematen dute.⁷ Jokabide horiei ematen zaien izenek berek ere indartu egiten dute generoaren ikuspegi hierarkikoa eta emakumezkoen infantilizazioa (*daddy* pertsona heldua eta beregaina da; *baby*a, berriz, gaztea eta mendekoa).

Horregatik, plataforma horiei lotutako autoesposizioa genero-ikuspegitik aztertu behar da, eta ulertu behar da jardunbide horiek genero-manakuntzak erreproduzitzen eta iraunarazten dituztela, gorputz femeninoak sexualizatzen direlarik nahi maskulinoak asetzeko.

Haurren eta nerabeen infantilizazioa eta erotizazioa nabarmena da praktika horietan eta horiek sustatzen dituzten plataformetan. Ikus daiteke emakumezko erabiltzaile askok nola nabarmentzen duten adin nagusira heldu berriak direla edo, are, adin txikikoak direnaren itxura egiten dute, nerabeena edo haurrena den estetika bat hartuz, bereziki erakargarriak direlako horrela beren harpidedunentzat edo *sugar daddie* modura erregistratutako helduentzat.

6 Emakume Gazteen Federazioa (2024) Onlyfans. Un espacio blanqueado del negocio del sexo [Onlyfans. Sexuaren negozioaren espazio zuritua].

7 García-Rodríguez, A. (2024). La digitalización de la industria de la explotación sexual: Un estudio exploratorio sobre el fenómeno del sugardating en España [Sexu-esplotazioko industriaren digitalizazioa: Espainiako sugardating fenomenoari buruzko esplorazio-azterlan bat]. *Gender On Digital*, 2, 57–80.

Haurren sexualizazioa eta esposizioa ingurune digitalean

Garrantzitsua da haurren eta nerabeen sexualizazioa bultzatzen duen iruditeria sozial eta kultural bat dagoela onartzea, batez ere ingurune digitalean. Horretan babesten da autoesposizioko jardunbideen normalizazioa eta legitimazioa, inpaktu berezia izanez adingabeen artean eta horien kontsumoa normalizatuz. Hala, gaur egungo kontsumoko kultura digital eta estetikoaren bidezko haur eta nerabeen hipersexualizazio gero eta handiagoak haur eta nerabe askok naturalizat edo, are, egokitzen jotzen dituzten jokabide jakin batzuk normaltzen laguntzen du. Baliozkotze soziala (*likeak*, jarraitzaileak eta iruzkinak), kuriositatea, itzartze sexuala eta taldearen presioa bezalako faktoreek agertoki aproposa sortzen dute eduki intimoa edo sexuala ekoizteko eta zabaltzeko, batez ere *sextinga* bezalako praktiken bidez, eta autoesposizio era horiek bultzatzen dituzte, aldi berean.

3. Hurrek eta nerabeek autoesposizioko espazio eta dinamikak ezagutu eta horietan sartu eta parte hartzea

Jarraian, espazio eta plataforma horiek hurrekin eta nerabeekin duten lotura aztertuko dugu. Ezagutzen dituzte? Nola ezagutzen dituzte? Autoesposizioa bultzatzen duten plataformetara sartzen dira eta parte hartzen dute?

3.1 Espazioen eta plataformen ezagutza

Egiaztatu da nerabeek ezagutzen dituztela eta sartzen direla plataforma horietara adin txikikoak izan arren. Horrek kezka sortzen du zer arriskuren eraginpean dauden ikustean, eta baita espazio horietako edukiek edo bertan izaten dituzten interakzioek haiengan izan dezaketen eraginagatik ere.

Esate baterako, gure tailerretan nerabeekin ingurune digitalari lotutako arriskuak eta kezkak landu zirenean, OnlyFans berehala identifikatu zuten diruaren truke sexu-edukia trukatzeko espazioaren adibide modura, bai mutilek, bai neskek,

tailerra gidatzen zuten helduek horretaz ezer aipatzerako. Parte-hartzaile gehienek nahiko erraz azaldu zuten sare sozial hori helduei zuzendutako eduki eskusiboa sortzeko eta partekatzeko erabiltzen zela ordainketa baten truke. Beste azterlan batzuek agerian utzi dute nerabeek xehetasunez ezagutzen dutela horren funtzionamendua, eskaintzen dituen funtzionaltasunak, harpidetzeko sistema eta tarifak. Eta, neskek, bereziki, esaten dute OnlyFansen gero eta gehiago erakutsi beharra dagoela dirua irabazi nahi bada, diru-sarrerak esposizio mailaren arabera izan ohi direlako.⁸

Era berean, tailerretan parte hartu zuten neskek eta mutilek azaldu zuten xehetasunez ezagutzen zituztela *sugar dating*aren dinamikak, eta gizartean harreman mota horiek gero eta gehiago normalizatzen ari zirela somatzen zutela.

**«Nahi dudanarekin nago eta nahi dudana irabazten dut.
Neuk onartzen dut, eta maitemindu ere egin naiteke». –**

Neska nerabea, *sugar* dadieri buruz


Baina, zergatik ezagutzen dituzte teorian helduek erabiltzeko eta kontsumitzeko diren plataformak? Horretan giltzarri dira plataforma horiek 18 urtetik beherako erabiltzaileak dauden espazio digitaletan erabiltzen dituzten sustapen- eta marketin-estrategiak, espazio horiek ikusgai jarritz erabiltzaile berriak atzitzeko.

a. Autoesposizioa sustatzen duten plataformen sustapen-estrategiak

OnlyFans bezalako plataformek eta *sugar dating*eko webguneek (Sugar Daddy España, kasu) marketineko estrategia oso garatu eta sofistikatu eta oinarritutako sustapen-ehun bat garatu izan dute, eduki inspiratzaileez, arrakasta ekonomikoaren istorioez eta ikusgarritasun sexuala saritzen duten algoritmoen baliatuta. Estrategia horiek, nagusiki, 18 urtetik 25 urtera bitarteko gazteei zuzentzen zaizkie, baina horien eragina haurrenganaino eta nerabeenganaino heltzen da, inkesta honetan egiaztatu izan dugun bezala: galdetu izan diegun gazteen heren batek baino gehiagok adierazi zuen haurrak zirenean sare sozialetan aurkitu zituztela eduki intimoa salduz dirua irabazteko aukera eskaintzen zuten argitalpenak, eta alde handia zegoen nesken eta mutilen artean, hurrengo irudian azaltzen den moduan.

8 Anciones Anguita, K., & Checa Romero, M. (2025). Making Money on OnlyFans? [Dirua irabazten duzu OnlyFansen? A Study on the Promotion of Erotic Content Platforms on Social Media and their Influence on Adolescents [Sare sozialetan eduki erotikoko plataformen sustapenari eta horiek nerabeengan duten eraginari buruzko azterketa bat]. Sexuality & Culture.

1. irudia. **Eduki sexuala saltzeari buruzko mezuekiko esposizioa.**



Mezuak jaso nituen ezezagunengandik, eduki intimoa sal nezala edo antzeko dinamiketan parte har nazala iradokiz

● Mutilak ● Neskak

Hala, kontsumo eta estatus maila jakin batzuk lortzeko glamourrez betetako aukera gisara aurkezten dira sare sozialetan *sugar datingari* edo eduki intimoa saltzeari buruzko marketin digitala zein narratiba normalizatzaileak. Irudi edo bideo intimoengatik zuzenean edo bitartekarien bidez dirua lortzeko aukera, zenbait kasutan, baliabide materialak edo “diru erraza” lortzeko bide azkar bat bezala ikusten da, eta nerabeak –batez ere, neskak– eduki intimoa sortzera bultzatzen ditzake, epe luzera horiek dituzten ondorioak aztertu gabe.

b. Sare sozialek autoesposizioko jokabide eta dinamikak sustatzen betetzen duten rola

Sare sozialak dira jokabide horiek sustatzeko eta horiek gauzatzen diren plataformak sustatzeko bitarteko nagusiak. Emakumeko ahalduntzearen, sexu-askatasunaren eta ekintzaile ekonomikoaren mozorropean nesken autoesposizioa sustatzen duten mezuak eta kontakizunak zabaltzen dituzte. Mezu horiek aktiboki bultzatzen dituzte autoesposizioko plataformek berek eta horietako erabiltzaile batzuek irabazi asmo batekin, eta sortzaile berriak atzitzeko diskurtso erakargarriak indartzen dituzte.

Hala, plataformen kanal anitzeko sustapen-estrategiak sare sozialen bidezko marketina jasotzen du, besteak beste, Instagram, Facebook, TikTok eta Twitter/X bezalako plataformetan. Egiazki, OnlyFansera sartzen diren gehienak beste sare sozial batzuetako zuzeneko esteken edo eduki partekatuen bidez sartzen dira (sortzaileen aipamenak, iragarkiak edo edukia): OnlyFansera heltzen den

trafikoaren % 61,10a X plataformatik dator, eta funtsezko publizitate-tresna batean bihurtu da eduki sexualari buruzko bere politikak malgutzearen ondorioz; % 12,76 Instagrametik dator, % 12,67 Redditetik, eta % 6,67 YouTubetik.⁹ Datu horietatik ondorioztatzen da plataforma horien ikusgarritasuna eta sarbidea, hein handi batean, nerabeen artean ospe handia duten sare sozialetan egoteari lotuta dagoela.

TikToken, Instagramen edo YouTubeen debekatuta dago eduki sexual esplizitua, baina ezkutuan erabiltzen dira plataforma horiek zeharka sustatzeko OnlyFriends¹⁰ bezalako eufemismoak (“helduentzako edukia duten plataformak”) erabilia edo “noporn” bezalako aldaketa ortografikoekin. Ohiko kontua da erabiltzaileen testigantzak edo kalean egindako elkarrizketak jasotzen dituzten bideoak aurkitzea, beren oinen argazkiak edo barruko arroparekin azaltzen direla salduta diru piloa irabazi izan dutela kontatuz, batez ere TikToken. Erabiltzaileak lortzera zuzendutako mezu esplizitu horiek pornografiarako eta esplotaziorako duten potentziala gutxitzea jotzen dute; itxuraz kalterik ez duten edo arrisku gutxikoak omen diren jokabideak aurkezten dituzte, baina neskak pixkanaka jokabide gero eta esplizituagoetara erakartzeko modu bat dira.

Hala, eduki intimoa sortzeari edo *sugar dating* motako harremanetan parte hartzeari lotuta irabazi ekonomikoak direla, luxuetarako aukera dutela edo gizartean mailaz igotzen direla nabarmentzen duten edukiak zabaltzen dira. Diskurtso horiek indartu egiten dira *influencer*en edo OnlyFansen parte hartzen duten pertsonaia publikoen aldetik, beren diru-sarrerak eta bizimodua ikustera emanaz, eta nerabeen ametsetako erreferenteak bilakatzen dira, bitartean plataformari publizitatea egiten diotela parte-hartzaile potentzial gehiago erakarriz.¹¹

Instagramen, gainera, era zuzenagoan sustatzen da: #OnlyFans traol-hitzak 4,3 milioi emaitza jasotzen ditu, eta #onlyfansgirls gisako eta antzeko aldagaiek 850.000 emaitza baino gehiago dituzte. OnlyFansen irudi eta eduki sexualizatuak merkaturatzen dituzten neska askok Instagram erabiltzen dute beren burua zabaltzeko eta harpidedun potentzial gehiagorengana iristeko. Ohiko kontua bihurtu da, halaber, gizonezko helduek Instagram edo TikTok bezalako sare sozialak erabiltzea neska gazteak bilatu eta horiekin kontaktuan jartzeko *sugar dating* motako harremanetarako.¹² YouTube, bere aldetik, *sugar dating*erako aholkuak jasotzen dituzten eta OnlyFans erabiltzen nola hasi erakusten duten tutoretza-bideoak eskaintzen ditu, batzuetan plataformaren “erabiltzaileek” berek

9 Anciones Anguita, K., & Checa Romero, M. (2025) egileen azterlanean aztertutako Hubiteren datuak.

10 Maldita.es (2023). Los vídeos en TikTok que venden las agencias de OnlyFans como un negocio para hacerse “millonario” y que llegan a menores [OnlyFanseko agentziek TikToken “milioidun” egiteko saltzen dituzten eta adingabeen eskura iristen diren bideoak.

11 Emakume Gazteen Federazioa (2024).

12 Padilla López, L. (2025).

eginak, gainera. Bizipenak partekatzen dituzte, aholkuak ematen dituzte profilei publizitatea emateko eta audientzia handitzeko, edukiak sortzeko, etab.

Beste alde batetik, OnlyFans erabiltzeko gomendioetan bertan ere Twitch plataforma aipatzen dute sustapenerako tresna gisa.¹³ Sare sozial hori edukien zuzeneko emankizunean oinarritzen da, eta beraz, zuzeneko interakziorako kanala eskaintzendu, erraztuegitenduelarikikus-entzuleak beste plataformabat zuetarako profiletara birbideratzea, eduki sexuala elkartrukatzera zuzendutakoetara barne.

Algoritmoek ere funtsezko eginkizuna betetzen dute profil berriak lortzeko lotutako edukien zabalpenean eta horien ikusgarritasunean, horiek sustatzea eta erabiltzaileengana iristea errazten dutelako. Kazetaritza arloko ikerketa akademiko batean egindako proba batzuen arabera, Instagramek ohikotasunez gomendatzen ditu bideo sexualak eduki sexualizatuan interesatuta daudela ematen duten nerabeen kontuetara, eta nerabe horiek saioa hasten dutenetik minutu gutxira egiten dute, gainera: hiru minutu besterik ez ziren igaro feedetan helduentzako eduki sexualaren sortzaileak agertzen hasi zirenean, eta, Reelak ikusten 20 minutu baino gutxiago zirela, probako profilak halako profilak sustatzen zituzten edukiez bete ziren. Horietako zenbait bideok irudi intimoak eskaintzen zizkieten erabiltzaileei, beren argitalpenekin elkarreraginean aritzen zirela.¹⁴ Horri buruz, tailerretako nerabeek berek onartzen zuten algoritmoek eginkizun garrantzitsua betetzen dutela kontsumitzen duten eduki motari dagokionez.

Gure inkestako datuek estrategia horiek sustapenerako eta posizionamendurako duten arrakasta berreste dute. Inkestan, gazteen erdiek baino gehiagok erantzun zuten adin txikikoak zirela ikusiak zituztela sare sozialetatik OnlyFans gisako plataformetara, *sugar daddie* orrietara edo antzekoetara birbideratzen zituzten estekak. Kasu horretan, gehienbat mutilek esan zuten ikusi izan zituztela eduki horiek, % 62,4k. Aldiz, nesken % 47,7k ikusi omen zituzten. Eta portzentaje apur bat handiago batek esan zuen ikusiak zituztela *influencerak* edo eduki sortzaileak plataforma horiek sustatzen edo horiei buruz hitz onak esaten. Azpimarratzekoa da telesailetan, filmetan edo erreferentziazko programetan jokabide horiek nola azaltzen diren normalduta.

13 Anciones Anguita, K., & Checa Romero, M. (2025).

14 Hagey, K., & Horwitz, J. (2024, June 7). Instagram recommends sexual videos to accounts for 13-year-olds, tests show [Probek erakusten dute Instagramek bideo sexualak gomendatzen dizkiela 13 urtetik beherako adingabeen kontuei]. The Wall Street Journal.

2. irudia. **Hurrengo esperientzien artetik, zein edo zeintzuk gerta zitzaizkizun 18 urte bete baino lehen? Adierazi iruditzen zaizkizun aukera guztiak.**


	Total	Chicos	Chicas
Sare sozialetatik OnlyFans bezalako plataformetara, <i>sugar daddies</i> orrietara edo antzeko tokietara birbideratzen zuten estekak ikusi nituen	% 51,1	% 62,4	% 47,7
Pertsonak izaera sexualeko edukia (argazki intimoak, barruko arroparen salmenta, beren oinen argazkiak, etab.) salduz dirua nola irabazten zuten azaltzen zuten elkarrizketak edo bideoak ikusi nituen	% 43,5	% 48,7	% 41,9
<i>Influencer</i> ak edo eduki sortzaileak ikusi nituen plataforma horiek sustatzen edo OnlyFans edo antzeko plataformei buruz hitz onak esaten	% 52,6	% 62,4	% 49,7
Adingabeek eduki sexuala saltzea aukera aproposa zela normaltzen, erromantizismoz hitz egiten edo erakusten zuten beste mota bateko edukia ikusi nuen	% 29,2	% 32,5	% 28,2
<i>Sugar dating</i> a zerbait ona edo erakargarria omen zela azaltzen zuten argitalpenak ikusi nituen sare sozialetan	% 45,2	% 32,1	% 49,3
Eduki intimoa salduz dirua irabazteko aukerak eskaintzen zituzten argitalpenak aurkitu nituen sareetan	% 34	% 38,5	% 32,7
Plataforma horiek diru-sarrerak lortzeko erabiltzen zituen edo erabiltzea pentsatzen zuten jendea ezagutu nuen neure inguruan	% 21	% 15,8	% 22,6
Eduki intimoa saltzea edo antzeko dinamiketan parte hartzea iradokitzen zuten ezezagunengandiko mezuak aurkitu nituen	% 34	% 15,4	% 39,7
Mota horretako jokabideak normaltzen zituzten erreferentziak ikusi nituen telesailetan, filmetan edo erreferentziazko programetan	% 45,2	% 48,7	% 44,1

*Sugar dating*ari dagokionez, parte-hartzaileen % 45ek baino gehiagok jardunbide hori zerbait ona edo erakargarria omen zela azaltzen zuen publizitatea aurkitu zuen sare sozialetan 18 urte baino gutxiago zutenean. 3. irudian ikus daitezkeenez, neskek probabilitate handiagoz azaldu zuten eduki horietarako esposizioa: % 49,3k *sugar dating*a modu positiboan sustatzen zuten mezuak ikusi izan zituzten. Halaber, mutilek baino neskek gehiago jaso zituzten ezezagunengandik sexu-esplotazioko egoeretan sartzera animatzen zuten mezuak (% 39,7). Mutilek, bere aldetik, arrisku gehiago azaldu zuten eduki sexualeko webguneetara edo sexu-esplotazioa sustatzen zuten edo positiboki hitz egiten zuten *influencer*ak ikustera zuzentzen zuten estekak ikusteko (% 62,4).

Eduki horiekiko esposizioaren maiztasuna nahiko handia zela azaldu zen: inkesta egindako nerabeen % 13,1ek adierazi zuen askotan (hamar aldiz baino gehiago) ikusi izan zituztela, eta % 18,7k aitortu zuen sei edo hamar aldiz bitartean ikusiak zituztela.

Ikusgarritasunerako espazioei dagokionez, Instagram (% 44,8) edo TikTok (% 37) gisako sare sozialak nagusitzen ziren, eta ondoren Twitter/X (% 31), Youtube (% 27,6) eta online jokoak eta streaming plataformak. Eduki horietara sartzeko beste bide batzuk erabili zituztela zioten parte-hartzaileek, batez ere, filmak ikusteko orriak aipatu zituzten.

3. irudia. **Autoesposizioaren jardunbideei eta plataformei lotutako edukia ikusi zuten tokia**



c. Generoaren arabera bereizita erabiltzaileak lortzeko estrategiak

Ezberdinak dira autoesposizioarekin lotuta mutilei eta neskei plataforma horiek sustatzeko zuzentzen zaizkien estrategiak eta mezuak. Neskei “eduki sortzaile” gisara parte hartzera bultzatzen zaie, eta arrakastarako, beregaintasunerako eta ahalduztze ekonomikorako espazioak balira bezala aurkezten zaizkie plataforma horiek. Mutilei, berriz, kontsumitzaile eta, halaber, “eragile”, “mentore” edo “ekintzaile” modura aritzera bultzatzen zaie, eurentzat ere negozioarako aukera bat balitz bezala azalduz, mota horretako jardueren izaera esplotatzailea zuritzen duten hizkuntza bat erabilita.¹⁵ TikTok edo Instagramen eduki sortzaileak nola lortu, profilei diruzko etekina nola atera edo beren sareak nola kudeatu azaltzen duten tutoretzak eta masterclassak daude, era aktiboan sustatzen dutelarik praktikan proxenetismo digitalaren modu berri bat besterik ez dena.¹⁶

Testuinguru horretan, rol hori norberaren irabazi asmorako profesionalizazioa bilatzen duten agentzia eta sare antolatuak sortu dira OnlyFansen inguruan: profilen kudeaketa, publizitateko eta marketineko estrategiak diseinatzea, neskei diru-sarrerak handitzeko beren irudia nola sexualizatu behar duten erakustea... Agentzia horietako batzuk coachinga, posizionamendu algoritmikoa edo bezeroaren arretarako zerbitzuak eskaintzen dituzte, komisioak edo ehunekoak kobratuz sortutako edukiarengatik. Agentzia horien artean, Only Agencia edo OnlyInfluencers bezalako izenak nabarmentzen dira.

Bitartekari modura aritzen diren agente horien itxurazko profesionalizazioak erabiltzaile gehiago erakar ditzake eduki intimoa saltzera diru-sarrerak, luxua edo ospe soziala lortzeko aukera handiagoekin lotzen duten ametsetako mezuen bidez. Praktikan, ordea, proxeneta horiek irabazien ehuneko esanguratsu batzuekin geratzen dira, eta kontrola dute neskek ekoizten duten edukien gainean, horien jarduerari beren interes ekonomikoen arabera erabilpena emanez. Finean, esplotatzaile sexualak dira.

«Mentore eta agente gisako profil berri batzuk sortu dira OnlyFans bezalako plataformetan, baina proxeneta digitalak dira egiazki, ekonomikoki esplotatzen dute ingurune seguru baten itxurapean». —Psikologia eta kriminologia arloko profesionala

15 Diaconía. (2024). Guía para profesionales del ámbito educativo. Trata en el mundo digital: protegiendo a los menores [Hezkuntza alorreko profesionalentzako gida. Pertsonen salerosketa mundu digitalean: adingabeak babesten. Madril: Diaconía.

16 Aránguez, T. (2023). OnlyFans. La uberización de la pornografía [OnlyFans. Pornografiaren uberizazioa]. T. Aránguez & O. Olariu (koord.), Ensayos ciberfeministas [Saiakera ziberfeministak] (99–119 or.). Dykinson.

Terminologia eta normalizazioa

Plataformek era masiboan sustatzen dituzte, sare sozialen bidez, plataforma digitaletan eduki sexualei dirua ateratzea edo *sugar dating* jarduna, independentzia ekonomikorako bide eta dirua irabazteko metodo erraz gisara, are ahalduntze femeninorako modura, aurkezten dituzten marketin-estrategiak erabilia. Sugar datinga, era berean, bizimodu glamourrari lotuta saltzen da.¹⁷

Egitez, *sugar dating*, *sugar daddy* edo *sugar baby* hitzek berek ere zuritu egiten dituzte jardunbide horiek, benetan sexu-zapalkuntzaren, zapaltzaileen eta neska zapalduen dinamikak direnean. Gauza bera gertatzen da OnlyFans bezalako plataformetan “eduki sortzaileak” edo “modeloak” hitzen erabilpenarekin edo coach, mentore edo ekintzaile gisako eufemismoekin, testuinguru horretan proxenetak eta esplotatzaileak besterik ez direlako. Hitz horiek praktika esplotatzaileak normaltzen laguntzen dute, larritasuna kenduz eta beren benetako izaeratik urrunduz, botere-harreman ezberdineko eta sexu-esplotazioaren berezko dinamikak direnean.


3.2 Plataforma horietarako sarbidea

Behin azterturik plataforma horiek zergatik eta nola ezagutzen diren, haxe da hurrengo galdera: horietara sartzen ari dira?

Orri horiek legez pertsona nagusientzat bakarrik badira ere, azpimarratzekoa da haurrek eta nerabeek zenbaterainoko erraztasunez gaingitzen dituzten egiaztatze-sistemak. Gure inkestan, parte hartu zutenen % 21ek erantzun zuen ezagutzen zutela plataforma horiek diru-sarrerak lortzeko erabiltzen zituen edo erabiltzea pentsatzen zuen norbait, neskek mutilek baino gehiago.

¹⁷ Padilla López, L. (2025). El proxenetismo digital y la captación de menores en redes sociales: Un análisis sobre la hipersexualización y el empoderamiento en plataformas online [Proxenetismo digitala eta adingabeak sare sozialetan atzitzea: Online plataformetako hipersexualizazioari eta ahalduntzeari buruzko analisi bat]. Revista de Victimología, (19), 213-250.

4. irudia. **Autoesposizioko plataformetarako sarbidea.**



Plataforma horiek diru-sarrerak lortzeko erabiltzen zituen edo erabiltzea pentsatzen zuen norbait ezagutu nuen neure inguruan

● Mutilak ● Neskak

2021ean, BBC kateak¹⁸ jakitera eman zuen adin txikikoak ziren pertsonen milaka kontu zeudela OnlyFansen, eta horietako asko agiri faltsifikatuekin sortuak zirela. Plataforma horretan egilekidetzan sortutako bideoen kasuak ere jaso izan dira; horietan, kontuaren titularra adin nagusikoa da, ez ordea filmatuak diren pertsonak. Are, haur txikiei egindako abusu sexualen bideoak dokumentu izan dira.¹⁹

Horrez gainera, SugarDaddyEspaña –AEBetako GreenClouds da horren jabea– bezalako plataformetan egiaztatu da zer erraztasunekin sortzen diren adin faltsuko profilak. Plataformak ez zuen aplikatzen inolako egiaztatze edo blokeatze motarik. ²⁰Gure inkestan, gutxitan agertzen zen fenomenoak bada ere, gazte batzuek erantzun zuten *sugar dating*eko webgune mota horietara sartu izan zirela adingabeak zirenean, 14 urte ingururekin.

18 BBC News Mundo (2021). *OnlyFans: menores venden videos explícitos aprovechando las fallas de controles de la plataforma* [OnlyFans: adingabeek bideo esplizituak saltzen dituzte plataformak kontrolean dituen hutsak baliatuz].

19 Moreno, K. (2024, 4 de julio). *La otra cara de OnlyFans: niños son víctimas de explotación sexual en la plataforma* [OnlyFansen beste aurpegia: haurrak sexu-esplotazioaren biktima dira plataforman]. Infobae.

20 García-Rodríguez, A. (2024).

Urrakortasun faktoreak

Haurtzaroan eta, bereziki, nerabezaroan, norberaren nortasunaren eraikuntzan eragina du talde bateko pertenezia beharrak, gizartean onartua izateko nahiak eta nagusi diren eredu kulturalak ezartzen duten presioak, kontsumoak eta irudiak funtsezko ardatza direla. Inguruan diren espektatibak betetzeko presioak euren barruan “bat etortzeko” premiazko sentsazio bortitza eragin dezake haur eta nerabeengan. Ingurune digitalak areagotu egiten ditu aintzatetsia izateko dinamika horiek jarraitzaile, like edo iruzkin kopuruen bidez, eta erosahalmenari, itxura fisikoari eta ametsetako eredu eta bizimoduak erakusteari lotutako arrakasta-estereotipoak erreproduzitzen ditu. Urrakortasun sozioekonomiko handiagoko testuinguruetan bizi direnak mezu eta presio horien zeharo eraginpean daude.

Hala, kontakizun horiek eta erabiltzaileak lortzeko era horretako moduak bereziki arriskuak dira urrakortasun sozioekonomikoan diren nerabeentzat; hori izan daiteke atzeritar jatorriko nerabe etorkinen edo babesgabezia direnen kasua. Egitez, 2024ko Emakume Gazteak txostenak garbi ohartarazten du urrakortasun sozial eta ekonomiko berezian egonik babes-sistemetako²¹ neska eta nerabe kopuru gero eta gehiago ari direla erabiltzen plataforma horiek diruaren truke eta eduki sozialki esplizitua saltzen ari direla beren egoera hobetze aldera.

4. Autoesposizioaren erak haur eta nerabeenganako pertzepzioan duten inpaktua

Autoesposizioari lotutako plataformen marketin- eta sustapen-estrategiak arrakastari eta glamourrari lotutako mezuetan oinarritzen dira erabiltzaile eta kontsumitzaile gehiago lortzeko asmoz. Sexu-esplotazioko era berri horiek normaltzea eta sustatzea bilatzen duten diskurtso eta mezu horiek aztertu ondoren, galdera hau egin genezake: ari dira beren egitekoa betetzen? Esan nahi baita, haurrek eta nerabeek zer pertzepzio dute jokabide horiez eta horretan aritzen diren pertsonen?

²¹ Kolektibo horrek sexu-esplotazio “fisikoetan” murgiltzeko duen arriskua askotan identifikatu eta dokumentatu izan da, baita esplotazio-sareen bitartez ere.

4.1. Online eduki sexualarekin dirua lortzen dutenekiko pertzepzioa

Gazteen ehuneko handi batek kezka agertu bazuen ere pertsonaren irudiari eragin ziezaiokeenagatik edo ondorio negatiboak lekarzkeen jarduera arriskutsua zela uste duten arren, zati garrantzitsu batek ez zuen garbi jardunbide horiek problematikoak direna. Izan ere, % 32,3k uste zuen autoesposizioa diru-sarrerak lortzeko era legitimo bat zela eta ia % 24ri ondo iruditzen zitzaizkien jardunbide horiek, nahiz eta eurek halakorik ez luketela egingo esan. Gainera, % 30 inguruk uste zuen Interneten eduki sexuala saltzen zuten pertsonak diru asko irabazten zutela. Hori lotuta egon daiteke jokabide horiek arrakasta ekonomikoarekin lotzen dituzten kontakizunekin, diru-sarrerak lortzeko modu erakargarri gisara aurkeztuz, batik bat, neska gazteentzat. Askok horri buruz iritzi argirik ez zutela erantzun zuten.


Neskak ziren kezka gehiago azaldu zutenak horretan aritzen direnen etorkizunari buruz (% 42,2, mutilen % 35en aldean) eta ondorio negatiboak ekar zitzakeen jarduera arriskutsua zela uste zutenak (% 38,9, mutilen % 32,9ren aldean). Horrek erakusten du mutilek sentsibilizazio gutxiago dutela jardunbide horiek dakartzaten arriskuei buruz. Horren zergatia baliteke izatea jardunbide horiek neskekin lotzen direlako, eta beraz, enpatia eta gogoeta kaskarragoa eragin lezake dituen inplikazio eta arriskuei buruz, eurekin zerikusirik ez balute bezala edo eurek hasiera batean horrelakoetan aritu beharrik ez dutela izango ikusten dutelako.

Era berean, nesken aldean mutilek gehiago uste dute ekintza horiek diru-sarrerak lortzeko modu legitimoa direla: halaxe adierazi zuen mutilen % 37,6k, nesken % 30,8ren aldean. Beste azterlan batzuk agerian utzi dute bereziki mutilak direla eduki sexualaren bidezko monetizazio-praktika horiek irabazi ekonomiko handiekin lotzen dituztenak, nahiz eta errealitateak ez izan zerikusirik publizitate-estrategietan sustatzen diren zifrekin. Izan ere, diru-sarrera nahiko prekarioak azaltzen dituzte eduki horiei lotutako jarduerengatik. Gainera, uste dute audientziarekin konexioak ezarriz “beren burua sustatzen dakitenek” lortzen dutela arrakasta handiena, eta neskek ikusten zuten diru-sarrera esanguratsuak lortzeko “ez zela nahikoa oinak erakustearekin”, pixkanaka gero eta gehiago erakutsi beharra zegoela bistaratzeak pilatzeko.²²

Datu horiek begi bistan usten dute gazteak nola ari diren barneratzen arrakasta ekonomikoa eta bizitzako arrakasta itxurarekin eta sexualizazioarekin lotzen dituzten sustapen-mezubatzuk, baiezkoa ematearen, presioaren eta esplotazioaren arteko mugak desagertzen doazela.

22 Anciones Anguita, K., & Checa Romero, M. (2025).

5. irudia. **Interneten eduki sexuala saltzen duten pertsonen buruzko iritzia.**



«Ez, bi pertsonen arteko kontratu bat da, neskak ez du dena jasan beharrik». —Neska nerabea

Adingabe batek Interneten eduki intimo eta sexuala saltzen zuen egoeretan nor uste zuten zela erantzule ere galdetu genien. % 65,9k adierazi zuen edukia erosten zuena zela erantzulea, % 62,9k esan zuen erantzukizuna gurasoena edo adingabearen zaintzaileena zela, % 60,1ek erantzun zuen eduki horiek saltzen ziren plataforma zela erantzulea, eta, azkenik, % 59,5entzat adingabea zen erantzulea.

Ia % 60 inguruk erantzukizuna adingabeari berari leporatzeak gauza bat iradokitzen du: testuinguru horietan indarrean jarraitzen du, hein batean behintzat, adingabeak beren esplotazioaren erantzule direneko pertzepzioa. Era berean, nerabeekin egindako tailerretan, esaten zuten adingabe batek horrelako material

bat saltzen edo trukutzen parte hartzen duenean, erantzukizun partekatua duela. Eta erantzukizun maila adinaren arabera zehazten zuten, erantzukizun handiagoa egotziz gurasoei seme-alabak adin goiztiarragokoak zirenean.

«Pederasta bati haur-pornografia saltzen dion edo argazkiak saltzen dizkion norbaitez ari gara, eta saltzen ari dena adin txikikoa bada, pederasta bati haur-pornografia saltzen ari da». —Mutil nerabea

Beraz, aldaketa baten premia dago fenomeno horri buruzko pertzepzio sozialean, batik bat, neska-mutilen beren artean, jardunbide horiei loturik diren desberdintasuneko dinamikak eta babesgabezia agerian jartzeko, genero-desberdintasuna, emakumeen kosifikazioa, sareetako instrumentalizazioa eta esplotazioa edo sexu-esplotazioa bezalako gaiak jorratuta.


«Mutiko bat, neskatxa bat edo nerabe bat ez da erantzule, biktima zaurgarri bat da». —Giza eskubideetan espezializatutako magistratua

4.2. Autoesposizio digitalari buruzko pertzepzioak

Autoesposizio digitalari loturik diren jokabideen ezaugarri diren botere-desorekak eta arriskuak gorabehera, jardunbide horiek gero eta onarpen sozial handiago ari dira lortzen, batez ere, neska gazteen artean. Era berean, ikusten goaz nerabeen artean naturalizat hartzen doazela, etengabeko esposizioa, kanpoko aintzatespena eta pertsonaren balioa itxura fisikoarekin edo arrakasta ekonomikoarekin lotzen duten erreferentziatzko pertsonaiak sustatzen dituen kultura digitalak bultzatuta.

Interneten eduki sexuala saltzen duten pertsonen buruz duten iritziaren gainean galdetu zitzaizenean, soilik % 28,4k uste zuen esplotazio era bat izan zitekeela, neskek mutilek baino gehiago. Horrek esan nahi du gazteen % 71 baino gehiagok (mutilen kasuan, % 75ek) ez zituztela jardunbide horiek esplorazio era batekin identifikatzen.

6. irudia. **Zer iritzi zenuen OnlyFans bezalako plataformetan eduki sexuala partekatuz diru-sarrerak lortzen zituzten pertsonen buruz?**



Azterlan honetarako haurren eta nerabeen sexu-esplotazioa zer den bazekitela erantzun zuten gazteen artean, ikusi da gazte gutxiagok identifikatzen dituela autoesposizioarekin lotutako jokabideak sexu-esplotazioko erekin, baita hirugarren bat denean ere eduki hori saltzetik irabaziak lortzen dituen.

Era berean, esanguratsua da sexu-esplotazioaren biktimak izan zirela ziotenen % 16k besterik ez ustea OnlyFansen erabilpenarekin lotutako jardueren arrisku eta ondorio negatiboak dakartzatela, biktimak ez zirenen taldeko % 38,1en aldean. Eta biktimak izandako % 52k uste zuen hori egiten zutenak irabazi ekonomiko handiak lortzen zituztela, biktimak izan gabeko taldeko % 28,9ren aldean. Era berean, ikusi zen biktimek maiztasun handiagoz egozten ziotela sare sozialen edo pertsona ospetsuen eraginari Interneten adingabeak eduki sexuala partekatzera bultzatzeko (% 56, 31,5en aldean).

Emaitza horiek iradokitzen dute sexu-esplotazio digitaleko biktimak direnen arrisku gutxiagokotzat edo normalagotzat jotzen dituztela mota horretako jokabideak, irabazi ekonomikoak eta eragin sozialari lotuz, urrakortasuna areagotzen delarik horrela. Elementu horiek elkartuta, sexu-esplotazio digitaleko egoeretara daramatzaten arrisku-faktore gisara aritu daitezke.

7. irudia. **Hurrengo ekintzetako zein uste zenuen zela sexu-esplotazioa?**
Adierazi uste dituzun guztiak.

18 urtetik beherako bati diruaren, oparien edo mesedeen truke eduki intimoko edukia bidaltzera behartzea, presionatzea edo engainatzea	% 55,9
18 urtetik beherako bati haren baimenik gabe egoera intimoetan grabatzea edo argazkiak ateratzea eta material hori xantaia egiteko edo haren kontura dirua irabazteko erabiltzea	% 52
18 urtetik beherako batekin jazarpena, xantaia edo mehatxuak medio harreman intimo bat izatea	% 50,2
18 urtetik beherako bati dirua, opariak edo mesedeak eskaintzea argazki intimoen (biluzik, genitalak bistan, barruko arroparekin edo bainujantziarekin) truke	% 48,2
18 urtetik beherako batekin harreman intimo bat izatea dirua, opariak edo mesedeak eskaintzearen truke	% 45,6
18 urtetik beherako bati <i>like</i> ak eta arreta eskaintzea sare sozialetan irudi edo bideo intimoak igotzearen truke	% 42,5
OnlyFans bezalako plataformetan harpidetzea eduki intimoa (biluzik, genitalak bistan, barruko arroparekin edo bainujantziarekin) salduz, eta hirugarren batek irabazia ateratzea hortik	% 37,7
OnlyFans bezalako plataformetan harpidetzea bere borondatez eduki intimoa (biluzik, genitalak bistan, barruko arroparekin edo bainujantziarekin) salduz	% 25,2

Eskuragarri dagoen ebidentziak, gainera, erakusten du nerabeek OnlyFans lan-alternatiba baliagarritzat jotzeaz gain erakargarritzat ere badutela. Plataforma horren bidez bere buruaren esposizioa egiten duten nesken urrakortasunari erreparatu beharrean, uste dute neskek abantaila dutela lana lortzeko balizko bide hori eskuratzeko orduan, batik bat, entzuleria edo ikusleria gehiena gizonezkoek eratzen duten testuinguru bat izaki.²³

Illo horretan, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Memoriak adierazten du fiskalek kezka adierazi dutela gazteek eta nerabeek aplikazio jakin batzuk (besteak beste, OnlyFans) eskura ditzaketelako, eta ohartarazten du adingabeak maiz ez direla jabetzen ingurune digitaleko jokabideek dakartzaten arriskuez edo arriskuak

23 Anciones Anguita, K., & Checa Romero, M. (2025).

hutsaltzen dituztela. Horregatik, hezkuntza-mailan prebentzio-helburuekin jarduteko beharra nabarmentzen du.²⁴

Tailerretan, neskek onartzen zuten OnlyFans espazioa arlo fisikoan bainoago arlo sinbolikoan zela arriskutsua, eta baliteke lotuta egotea ingurune digitalean den segurtasun faltsuko sentrazioarekin eta ingurune horretako arriskuak arlo fisikokoak baino errealitate edo larritasun gutxiagokoak direla ustearekin.

«OnlyFans segurua da fisikoki, nork ikusten duen hautatzeko aukera ematen duelako, baina ez da segurua Interneten, ez dakizulako zer asmorekin erabiltzen duten».

—Neska nerabea

Bestalde, nerabeei kezka eragiten zieten *sugar dating* harremanen normalizazioak. Horri buruz, neska batzuk uste zuten baimena emateko aukera dagoela mota horretako harremanetan eta neskek kontrola eta irabaziak lortzeko aukera dutela, baita maitemintzeko ere. Oro har, uste dute harreman horiek bi aldetiko kontratu bat dakartela, hau da, diruzko edo irabazien elkartruke hitzartu bat dago konpainia egitearen edo interakzioaren truke. Are halako testuinguruetan, horietako neska batzuk uste zuten emakumea ez dela erantzule eraso sexual bat jasaten badu edo norbaitek nahi ez dituen gauzak egitera bultzatua bada. Alabaina, azpimarratzekoa da guztiek ez zituztela baimenik gabeko jokabide jakin batzuek indarkeria era gisara identifikatzen, balizko “akordio” horren parte bezala identifikatzera jotzen zuten. Beraz, indartu egiten du emakumeak tratu hori onartzera behartuta egotearen ideia.

«Neuk aukeratu izan dudan zerbait da, eta nahi ez dudan zerbait gertatzen bada, neuk onartu izan dut, eta beraz, aguantatu egin behar dut». —Neska nerabea, *sugar dating*ari buruz

Jokabide horiek normalizatuz, zaildu egiten da indarkeria mota gisara identifikatzea eta erraztu egiten du halakoak erreproduzitzen dituzten gero eta neska izatea eta kontsumitzen dituzten gero eta mutil gehiago egotea. Horrek, aldi berean, bere burua indarkeriaren biktima izan dela aitortzeko zailtasuna dakar, eta fenomeno hori larriagotu egin daiteke biktimaren eta esplotatzailearen artean sortzen

²⁴ Estatuko Fiskaltza Nagusia. (2025). 2025eko memoria (2024ko ekitaldia). Lehendakaritza, Justizia eta Gorteekiko Harremanetarako Ministerioa.

den loturarengatik²⁵, zaildu egiten duelarik bai biktimizazioaren aitortza, bai abusuzko loturarekin haustea. Normalizazio horrek inpaktu zuzena du jokabide horiek ingurune digitaleko sexu-esplotazioarekin duten arriskua identifikatzeko zailtasunean.

4.3. Esplotazio-dinamiketan kontrola eta ahalmena izatearen ilusioa

Jardunbide horietan parte hartzen duten nerabe askok kontrola dutela ustearen ilusioa da dokumentu honetan aztertutako gainesposizioako jardunbideei lotutako arrisku nagusietako bat. Elkartruke bat eta onura bat dagoela ikusten dutenez, gazte askok uste du borondatezkoa dela, eta beraz, ez duela zerikusirik esplotazioaren dinamika batekin. Alabaina, harreman horietan botere-asimetria sakonak ematen dira, adinaren, generoaren, egoera ekonomikoaren edo esperientziaren arabera. Halako testuinguru batean, saria ematearen kontrola duenak du, halaber, egoeraren gaineko kontrola, eta beraz, zapuztu egiten du baimen aske eta informatua izateko edozein aukera.

«Sexurako baimenaz hitz egin izan da, baina ez da hitz egin ingurune digitaleko sexurako baimenaz. Esparru digitala gorputzaren esparrua baino zailagoa da, askoz konplexuagoa da baimena non amaitzen den aztertzea; jokabide batzuek, are, alderdi ia automatizatu bat izan dezakete». —Indarkeria sexual digitaletan espezializatutako abokatu

penalista

Jardunbide emantzipatzaile nola ahalduntzaileak izan ordez, egiatan, emakumeen gorputzaren kosifikazioa eta emakumeak gizonezkoen nahi eta espektatiben menpe egotea indartzen dute. Autoesposizioaren jokabide horiek bultzatzen dituzten plataforma digitalak katalogo sexualak simulatzen dituzten erakusleiho birtual gisara aritzen dira, non emakumeak eta neska nerabeak beren ezaugarri fisikoen, adinaren edo herritartasunaren arabera aintzatesten diren, prostituzioan eta pornografian agertzen diren logikak errepikatzen direla. Hori dela eta, kontakizun horiek onartzean, jokabide horiek burutzen dituzten nerabe askok ez dute beren burua biktimizat jotzen, transakzio sexuala legezko eta, are, aukera modura ikusten duten elkartruke batekin lotzen dutelako. Horrek zaildu egiten du dinamika horiekin apurtzea edo laguntza eskatzea.

«Zerbait txarra egiten duzun lehen aldia ez da zure errua, bigarren aldia bai, onartu egiten duzulako». —Neska nerabea

Halatan, nerabeek eduki sexualizatueterako eta jardunbide eta plataforma mota horien sustapenerako duten esposizio errepikatuak eragina izandezake generoaren eta sexualitatearen rolekin lotutako sinesmenetan. Ondorioz, indartu egiten dira genero-estereotipoak eta gorputzaren merkantilizazioaren normalizazioa nahiz eduki sexualaren monetizazioa. Estandar estetiko eta edertasun-eredu jakin batzuk betetzen dituzten emakumeek diru gehiago irabazten dutela uste izateak ere arrakasta gorputzaren estandar sexualizatuak betetzearen mende dagoenaren ustea indartzen du.

Gainera, ikusi izan denez, jardunbide horiek genero-rolei buruzko kontzepzio kontserbadoreak erreproduzitzen eta indartzen dituzte. *Sugar dating*aren kasuan, esate baterako, neska gaztearen irudia mendekotasun ikuspegi batetik agertzen da, eta gizonak jokatzeko eman egiten duen rola, rol menperatzailea. Dinamika horrek, hartara, mendekotasuneko posizioa esleitzen dio emakumeari, eta haren balioa erakargarritasun fisikoari, gaztetasunari (edo infantilizazioari) eta gizonei gozamenarekin ematearekin lotuta dago. Egitez, *sugar dating*en plataformarik ezagunenetako batek *trad wives* delakoen mugimenduarekin lotzen du, esplizituki, harreman eredu hori, “tradizionaltzat” hartzen diren balio kontserbadoreetara itzultzea sustatzen duen emakumeen ideial modura. Lotura horrek agerian uzten du jardunbide horien eta generoari eta harremanei buruzko iruditeria kontserbadoreen erreprodukzioaren artean den konexioa, eta jardunbide mota horiek normalizatzen dituzten nerabeek bere egin ditzakete.

Nerabezaroa bezalako funtsezko garapen-etapa batean, nortasunaren eraikuntza eta aintzatespenaren bilaketa giltzarri direnean, mezu horiek estrategia ezberdinak sortzen dituzte mutilengan eta neskengan onartua izateko behar hori betetzeko, pertsona horien garapen askea mugatzen duten genero-rolak normalizatzea edo bereganatzea helduz. Izan ere, autoestimua irudi hipersexualizatu bati eta gizonezkoen balioespenari lotzeak mugatu egiten die neskatilei eta emakumezko nerabeei nortasunaren garapena euren nahi eta asmoen arabera garatzeko aukera, kosifikazioan oinarritutako onarpenean eta mendekotasun-rol bat onartzeari lotuta daudelako. Mutilen kasuan, berriz, emakumeak kontsumoko objektuak bailiran kosifikatzen dituen eta gizonezkoen nahi eta iruditeriaren mende diren maskulinitate bat onartzea dakar. Rol horiek garai goiztiarrean onartuz gero, betikotu egiten ditu emakumeen eta gizonen artean desberdintasuna eragiten duten genero-estereotipo horiek, eta generoan oinarritutako indarkeriazko praktikak normalizatzea jotzen da.

5. Haurrak autoesposizio digitala sustatzen duten plataforma eta espazioetara atxikitzearen arriskuak

Haurrek eta nerabeek espazio horietan parte hartzen badute, bai esposizioaren aldetik, bai kontsumoaren aldetik, arrisku larriak dakartza haur eta nerabeen ongizaterako, segurtasunerako eta garapenerako.

- **Edukiak sortzeari lotutako arriskuak**

Nerabeek eduki sexual mota hori partekatu eta sortzen dutenean, kalteberagoak dira ingurune digitaleko indarkeria sexual motetara, esaterako *grooming*era, estortsiora, sextortsiora edo ziberjazarpena; hortik datoz, hain zuzen, arrisku nagusienak.

Autoesposioari lotutako beste arrisku batzuen artean, iruzurak eta xantaiak, manipulazio emozionala edo irudi sexualak baimenik gabe banatzea daude; adibidez, materiala Telegram edo Discord bezalako plataformetan edo haurrenganako abusu sexualaren materiala (CSAM, ingelesez) elkartrukatzeko foro eta webguneak.²⁵ Arrisku horiei osasun mentalaren, nortasun pertsonalaren eta autoestimua gainean sor daitezkeen ondorio negatiboak eta balizko estigmatizazio sozialarekin lotutakoak gehitu behar zaizkie, jokabide horiek uzten duten aztarna digitala ezabatzeko den zailtasuna ahaztu gabe.

Arrisku bereziki kezkarri bat salerosketa eta esplotazio sareetarako harrapatzea da. Gure inkestan 18 urte bete baino lehen sexu-esplotazioaren biktima izan zirela erantzun zuten neska-mutilen % 24k adierazi zuen OnlyFans bidez sortu zela esplotatzailearekin kontaktua, eta % 36k esan zuen esplotatzaileak *sugar dating*en eta antzeko webguneen bitartez jarri izan zirela haiekin harremanean.

Espanian, hain zuzen, Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak ikusi dute OnlyFans bezalako plataformak direla prostituziorako eta bestelako esplotazio motetarako sarbidea, eta plataforma horren bitartez haurrak eta nerabeak nola harrapatzen dituzten ohartarazi dute.²⁶ Plataformak, ordea, ez du ezer jakin nahi arrisku horiez, esanez bitartekari huts bat besterik dela, legezko erantzukizunak saiheste aldera. Hala eta guzti, ezin da esan plataforma hori bitartekari huts bat denik,

25 CSAM tradizionalki "haur pornografia" gisara ezagutzen denaz ari da. Termino horren erabilpena, ordea, ez da egokia ikusten ekintza horien larritasunari garrantzia kentzera jotzen duelako: "pornografia" hitza, nagusiki, pertsona helduen artean adostutako ekintzetan sexu-adierazpenetan duten parte-hartzea azaltzeko erabiltzen den bitartean, adingabeak tartean badira abusu sexuarekiko ekintzak dira beti. Informazio gehiagorako, ikus: Save the Children (2025). Redes que atrapan [Harrapatu egiten duten sareak].

26 La Vanguardia. (2025eko urriaren 6a). *Chicas en OnlyFans, obligadas a especializarse para tener más éxito [OnlyFanseko neskak espezializatzen behartuta arrakasta handiagoa izateko]*.

irabazi ekonomikoak lortzen dituelako zuzenean hor agertzen diren edukiengatik. Beraz, legez erantzule jo daiteke erakutsiko balitz jakitun direla eta irabaziak dituztela legez kanpoko jarduera horiez, *Harrapatu egiten duten sareak* azterlanean plataforma digitalei buruz azaltzen genuen moduan.

- **Kontsumitzaile gisa eduki horiek dituzten arriskuak**

Kontsumitzaile moduan, haurtzaroan eta nerabezaroan eduki horien eraginpean egoteak ondorio oso kaltegarriak ekar ditzake haien garapenerako. Pornografiaren esposizioan gertatzen den moduan, eduki horiek eragina izan dezakete harreman afektibo eta sexualak hautemateko eta ulertzeko orduan, genero-estereotipo diskriminatzaileak nola biolentoak indartzen direla eta emakumeen irudia prezio baten truke itxura fisikoari, eskura edo mendekotasunean egoteari eta euren identitatea ukatzeari emanik lotuz. Plataforma horien kasuan, gainera, arrakasta ekonomikoa sexu-esposizioari eta -elkatrukeari lotzeko arriskua dago, irudia nahiz gorputza salerosi daitezkeen kontsumoko objektu bihurtzekoaren sinesmena indartuz eta esplotazio-dinamikak iraunarazten dituzten pertzepzioak sustatuz.

Eta genero-desberdintasunak baldintzatutako testuinguru batean, jardunbide horiekiko esposizioak ate zabaldie zaiotzeko askotariko intentsitateetako indarkeriari, eta indarkeria horrek, gainera, ez du inpaktu berbera neskengan eta mutilengan. Nesken kasuan, inpaktua handiagoa da beren autonomiaren gainean eta beren nortasunaren eraikuntzan, mutilen aldetik onartuak izateko beharrak (beren itxura fisikoari eta beren sexualizazioari lotuta doa) presioak eragiten dizkietelako, beren nahiak, beharrak eta eraikuntza afektiboak desitxuratuz. Mutilen kasuan, berriz, presio handia jasaten dute kontrolean eta kontsumoan oinarritutako maskulinitate era bakar bat garatzeko, aukera gutxi geratzen zaielarik beren nortasuna garatzeko, beren nahietan sakontzeko eta berdintasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako kultura afektibo bat bultzatuko duten harremanak ezartzeko.

«Irudia ezin duzu kontrolatu, ezer ez da inoiz segurua».

— Neska nerabea.

Haurrek eta nerabeek kultura digitalean duten etengabeko agertzea eta esposizioa

Egungo ekosistema digitalean, sare sozialek normalizatu egin dute etengabeko esposizioa, baita haurrena eta nerabeena ere. Testuinguru horretan, adin txikiko *influencer*ak sortu dira, *child influencer*ak, batez ere YouTube, Instagram edo TikTok bezalako plataformetan. Sare horiek ezartzen dituzten adinares arabera murrizketak gorabehera,²⁷ gurasoek euren izenean profilak ireki eta kudeatzeko aukera eskaintzen dute. Horren emaitza gurasoek administratzen dituzten kontuak dituzten haur *influencer*ak dira, eta seme-abalak nerabearora heltzen direnean ere horiek kudeatzen jarrai dezakete. Gai esposizio horrek urratu egin ditzake haien eskubideak, kalte egin diezaioke haien nortasunari eta garapen pertsonalari eta arrisku handiak dakartza, oso goiz ekiten baitiote beren bizitza birtualari, epe luzera ondorioak izanez beren hatz digitalean.

Horren haritik, The New York Times egunkariak kontu horiek aztertuz azaleratu zuenez, sare sozial horiek haurtzaroa aldatzen ari dira, bereziki neskena, gurasoen zuzeneko babesarekin eta parte-hartzearekin eta marken eta enpresen kolaborazio eta babesletzarekin. Eta profil horietako batzuek haurrenganako interes sexuala dutela onartzen duten gizonezko helduen arreta nola erakartzen duten ohartarazten du. Kasu batzuetan, gurasoak berak dira argazkien, txat bidezko saioen edo *streaming* eskusiboen salmenta sustatzen dutenak, are alaben jantziak saltzen dizkiete jarraitzaileei, gehien bat gizonezko ezezagunei. Interakzio horiek diru kopuru garrantzitsua ekar dezakete, eta dinamika argiro esplotatzaileak erreproduzitzen dituzte, non gizon helduek dirua adingabeekin harremanak izateko inbertitzen duten. Amek mutilentzat kudeatutako kontuak ere badauden arren, salbuespena dira.

Haurren segurtasunean aditu direnek dinamika horien arriskuez ohartarazi dute. Izan ere, gizon batzuk uste dute konexio berezi bat garatzen dutela neskatilekin, eta neskatilek, berriz, ikasten dute gizonezkoen audientzia baten espektatiba eta beharrei erantzun behar dietela. Esposizio horrek neskak jendaurrean erakustera ohitzen ditu, eta ikusgarritasuna aintzatespena eta dirua lortzeko bide legitimoa bat dela ulertzera, geroagoko etapetan autoesposizioa daramatzan dinamikak normalizatuz. Lil Tay izeneko neskaren ibilbidea da horren adibide bat. 9 urterekin ekin zion esposizioari YouTuben *influencer* gisa, haren amak kudeatzen zuen kontu baten bidez, eta adin nagusira heldu zenean profil bat ireki zuen OnlyFansen.

27 Youtuben eta Metan sartzeko gutxieneko adina 14 urte dira; TikTok, berriz, 13 urtetik aurrera sar daiteke.

Nesken kontuen jarraitzaileen artean, The New York Timesen ikerketak jarraitzaile “ez-egokiak, harrapakariak edo pornografikoak” aurkitu zituen, beste kanal batzuetan haurak sexualki abusatzen zituztenaren fantasiak inolako lotsarik gabe azaltzen zituzten gizonetzko pedofiloak barne, eta baita delitu sexualengatik zuzenean akusatuak edo kondenatuak izandako beste batzuk ere. Nesken kontuetan sarritan jasotzen dira mezu eta iruzkin desagokiak. Iturri horrek berak, halaber, azaltzen du gizon horietako batzuek sare sozialak erabiltzen dituztela familiekin zuzenean kontaktuan jartzeko, eduki gero eta probokatzaileagoa argitaratzera presionatuz edo bultzatuz, are horren truke dirua, opariak edo babesletza eskainita. Mota horretako dinamikak urrun daude salbuespena izatetik, agerian uzten dute haurrak sareetan agertzeak apeta sexualak betetzea bilatzen duten helduekiko interakzioa normalizatzen den inguruneetara eraman dezakeela, arriskuan jarritz hor sartuta ikusten diren haurren segurtasuna eta ongizatea.

Arrisku guzti horien aurrean, plataformek ez dute hartu horiek gutxitzeko beharrezko neurririk. Estatu Batuetan egindako auzi batean, argitara atera zen enpresa teknologiko nagusietako baten barne dokumentazioa, haurren segurtasuna “bigarren mailako helburua” zela jasotzen zuena.

6. Gomendioak

Haurren eta nerabeen sexu-esposizioak edo -gainesposizioak, sexu-esplotazio era bat den aldetik, arrisku larriak dakartza haurrentzat eta nerabeentzat. Hori dela eta, mota horretako indarkeriari aurre egingo dioten neurriak garatu beharra dago jarduketa-esparru ezberdinetatik:

- **Ikerketa bereziak sustatu** behar dira ingurune digitalean gero eta indar gehiago hartzen ari diren sexu-esplotazio era horiei buruz, arreta berezia jarritz haurrek eta nerabeek autoesposizioa dinamiketan duten parte-hartzean eta eduki sexualen monetizazioan, guztia genero-ikuspegi batetik. Ikerketa horiek prebentzio eta babes integralerako estrategiak prestatzeko oinarri izan behar dira, bereziki erreparatuz urrakortasun afektibo edo ekonomiko handiagoan aurkitzen diren haur eta nerabeei.
- **Heziketa afektibo-sexual** integrala zeharkako eran txertatu behar da hezkuntza-curriculumean (arautua egon behar du adin goiztiarretik, eta hezkuntza fase bakoitzera moldatuta), eta **herritartasun digitaleko heziketa** ere behar da genero-ikuspegitik landuta, haurren eta nerabeen sozializazioaren eta ingurune digitalaren berezitasunak kontuan hartuta, etapa bakoitzera moldatuta jorratuz baimena ematea, pribatutasuna, *sextinga*, pornografiarako sarbidea, nortasun digitalaren kudeaketa, esparru horretan gauzatzen diren presioak eta ingurune digitaletan muga osasungarriak ezartzeko tresnak bezalako funtsezko alderdiak. Familiak ere informazioa eta prestakuntza jaso behar dute alor horietan, eta Administrazio Publikoek horretarako baliabideak eskaini behar dituzte.
- **Haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten profesionalen prestakuntzak** sexu-esplotazioa, autoesposizioarako erak eta generoan oinarritutako Interneteko indarkeria sexualak bultzatzen dituzten dinamika digitalei buruzko eduki bereziak jaso behar ditu, batez ere hezkuntzaren esparruan. Profesionalak funtsezko bidea dira indarkeriak hautemateko eta prebenitzeko, eta horretarako prestakuntza izan behar dute, biktimei lagundu ahal izateko.
- Eduki sexualen monetizazioari eta *sugar dating* bezalako praktikei lotutako jardunbideen normalizazioak agerian uzten du esplotazio-era horiei eta horien arriskuei ikusgarritasuna emango dieten **sentsibilizazio-kanpainak sustatzeko** dagoen premia. Kanpainak horiek bereziki jorratu behar dute haurrek eta nerabeek autoesposizioa edo gainesposizioa jardunbide horietan duten parte-hartzea, ikustera emanaz haurtzaroaren eta nerabezaroaren kontrako indarkeriak direla eta borondatezkoa omen dela eta ahalduntzea dakarrela

dioten mitoak deseginez, baita jardunbide horiek diru-sarrerak izateko era erakargarri edo erraza direnaren ustea ere. Horren ordeztu, horiek ekar ditzaketen arriskuak eta esplotazio-dinamikak azpimarratu behar dira.

- Era berean, **emakumeen infantilizazioa eta haurren eta nerabeen sexualizazioa ezbaian jarriko duten gizarte osoari zuzendutako kanpainak** behar dira. Kanpaina horiek agerian utzi behar dute jardunbide horiek nola bultzatzen duten kosifikazioa eta desberdintasunen eta genero-indarkerien iraupena.
- **Enpresa eta plataforma teknologikoek funtsezko eginkizuna** dute fenomeno horri heltzeko eta haurrak eta nerabeak ingurune digitalean babesteko.
 - » Eduki sexualak monetizatzen dituzten plataformek eta *sugar dating*eko web-orriek bermatu egin behar dute adin txikikoak direnak beren edukietara ezin direla sartu eta beste espazio batzuetan ere ezin dutela ikusi, kontuetan ezin direla erregistratu eta helduek kudeatzen dituzten bideoetan ezin direla agertu. Horretarako, adina egiaztatzeko benetako mekanismoak ezarri behar dituzte, moderazio-sistema eraginkorrak, gardenak eta ikuskatu daitezkeenak, sexu-abusuko eta -esplotazioko materiala hautemateko teknologiak ezarri behar dituzte beren plataformetan, legezkoak ez diren edukiak eragozteko eta kentzeko mekanismo eraginkor eta azkarrak ziurtatu eta indartu behar dituzte, eta agintariekin kolaboratu behar dute ikerketetan.
 - » Haurrei eta nerabeei sartzen uzten dieten sare sozialentzat eta plataformentzat lehentasuna izan behar du haurren babesa. Algoritmoak aztertu eta birdiseinatu beharra dago adin txikikoei zuzentzen diren eduki sexualizatuen sustapena saihesteko. Administrazio Publikoek, bere aldetik, gardentasun algoritmikoa eta sare sozialetako enpresa eta plataformei arrisku-auditoretzat egitea bermatuko duten araudiak ezarri behar dituzte.
 - » Eta erabilpen-arauek adingabeei baimena ematen dieten espazio digital guztietan OnlyFans bezalako plataformen edo *sugar dating*ari lotutakoak bezalako enpresen publizitatea, sustapena edo zabalpena berariaz debekatuta egoteko mekanismoak ezarri behar dira. Plataformek eta sare sozialek adinaren eta edukien kontrolaren arabera indartu behar dituzte beren segmentazio-politikak, mezu horiek 18 urtetik beherakoengana ez direla iristen bermatuz.
 - » Oro har, funtsezko kontua da plataforma digitalen, komunikabideen eta marken erantzukizuna sustatzea beren edukiaren, publizitatearen eta kolaborazioen gaineko politikak berrikusi ditzaten, haurren eta nerabeen

hipersexualizazioa sustatzen duten mezuen edo irudien zabalpena saihestuz.

- **Ingurune digitaletan gurasoek edo tutoreek kudeatutako kontuen bidez haurren eta nerabeen gainesposizioa ere aztertu** behar da. Adin txikiko *influencer*entzako kontuak irekitzea edo kudeatzea eragozten duten neurriak ezarri behar dira, indarreko araudiarekin bat etorriz ez dezaten behar den adinik izan sare sozialetan euren kabuz profilak sortu eta administratzeko. Horretarako, Administrazio Publikoen eginkizuna da eragin digitalaren esparrua, adingabeak ordaindutako edukien sormenean parte hartzea eta shareting fenomenoaz aztertuko dituzten legezko mekanismoak abian jartzea, haurren eta nerabeen pribatutasuna errespetatuko duten kultura digital bat sustatuz. Plataforma eta enpresa digitalek, bere aldetik, bere gain hartu behar dituzte adina egiaztatzearekin eta adingabeei lotutako edukia ikuskatzerekin lotutako erantzukizunak.

7. Konklusioak

Plataforma batean eduki sexuala saltzeko kontu bat irekitzea edo harremana kontrolpean duen *sugar daddy* batekin harreman bat izatea hori egiten dutenentzat arrisku larriak dakartzaten jardunbideak dira, eta kalteberatasunera eramanez ditzakete. Plataforma horiek saltzeko erabiltzen dituzten borondateari, baimenari eta ahalduzko buruzko diskurtsoak eta mitoetatik bainoago sexu-esplotaziotik hurbilago dauden dinamikak erreproduzitzen dituzte. Hala ere, mezu honek ez du ematen gizarteak tokia egiten ari denik, jokabide horiek onartuak eta naturalizatuak izaten ari baitira, ezta mutil eta neska nerabeen artean ere, horren larritasunaz ohartu beharrean normalizat hartzen ari direlako, dirua irabazteko aukera erraz eta, are, erakargarri modura ikustera heltzeraino.

Ikusi dugu nerabeek ezagutzen dituztela jardunbide horiek, baita horiek gertatzen diren plataforma nagusiak ere, eta ezagunak zaizkiela horko dinamikak eta badakitela horietara nola sartu, murrizketak murrizketa. Plataformek, bere aldetik, ez dute adingabeei espazio horietarako sarbidea eragozteko mekanismorik edo aski borondaterik, dela eduki horien ikusle modura, dela horien “sortzaile” modura. Aitzitik, plataforma horiek bultzatzen dituzten estrategiak badirudi jende gaztearengana heltzen direla zuzenean, tartean adin txikikoengana, sare sozialen konplizitate algoritmikoa lagun. Estrategia horiek generoaren arabera bereizten

diren mezuak zabaltzen dituzte, eta neskei eta mutilei rol ezberdinak esleitzen dizkiete dinamika esplotatzaile batzuen barruan. Eta, kezkarria dena, ikusten dugu sustapen-mezu horiek nerabeengana heltzen direla, inpaktua sortuz sexu-autoesposizio digitaleko jokabideen inguruan eta horietan parte hartzen dutenei buruz.

Azaldu dugunez, horrelako ezer ez da hutsetik gertatzen edo sortzen. Internet laneko karrera baten gisara ikusten den eta “eragiteko” aukera helburu profesional normalizatu eta gutzitu gisara ikusten den testuinguruan, zer onar daiteke eta zer ez inguru digital batean monetizatzeko? Denbora? Zailtasunak? Irudia? Gorputza? Plataforma digital askoren diseinuak berak –etengabeko arretan, irudiaren eta intimitatearen gainesposizioan eta pribatutasunaren salmentan oinarritzen da– bultzatu egiten du erakustea dirua lortzeko modu batean bihurtzen duen kultura digitala, monetizazioari eta elkartrukeari lotutakoa.

Horrenbestez, gazteei arrisku horiez kontzientziatzeko ahaleginak ezin dira mugatu gazteen heziketa digital eta sexu-afektiboan oinarritutako prebentziozko esku-hartzeetara, nahiz eta horiek funtsezkoak izaten jarraitzen duten eta haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubide bat diren. Plataformek eta sare sozialek autoesposizio-jardunbide horien zabalpenean eta normalizazioan betetzen duten rol erabakigarriak beharrezkoa egiten du elkartrukeko plataformei eta sare sozialei erantzukizunak eskatzea, haurrentzat eta nerabeentzat segurua izango den ingurune digital bat bermatu behar dutelako.

Eta gizarte gisara eta ingurune digitaleko erabiltzaile modura, geure gain hartu behar dugu haurrak eta nerabeak hazten diren inguruneak eraldatzeko erantzukizun kolektiboa. Hipersexualizazioak markatutako ekosistema digital arrotz bat ari gara eraikitzen, haurren adultifikazioa eta emakumeen infantilizazioa elkarbizitzan direna, biak ala biak joera oso arriskutsuak izanik, eta amaiera eman behar zaio hori normalizatzeari. Ezinbestekoa da, beraz, testuinguru kultural, mediatiko eta sozialetan aldaketak sustatzea, jardunbide horiek errazten dituzten eta normalizatzen laguntzen duten kontakizunei amaiera emanez.



Editatu:

Save the Children España
2025 Azaroa

